



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LEHEN HEZKUNTZA / HIRUGARREN ZIKLOA

Biderik seguruena





Sarrera ▶

Fitxa teknikoa ▶

Jardueraren garapena ▶

Jolasa :

Elkarrizketa gidatua :

Ondorioak :

Jarduera osagarriak ▶

Sarrera

Dinamika honen ardatza joko bat da, helmuga batera iristeko osatu beharko diren hainbat ibilbide simulatzen dituena.

Jolasean oinarrituta, arauak eta seinaleak bideetako bizikidetzan duten garrantziari buruzko elkarrizketa gidatua proposatzen da.

Dinamika amaitzeko, ingurune elementuetan arreta jartzeko beharra azpimarratzen da, mugikortasun segururako oinarritzko prebentzio-jokabide gisa.



Erabilgarritasuna

Ziklo honetako ikasleek gero eta autonomia eta independentzia handiagoa dute joan-etorrietan. Horrek gaitasunak eskuratzeko beharra dakar, arriskuak behar bezala ebaluatzeko eta bide-testuinguru bakoitzari dagozkion erabakiak hartzeko, betiere segurtasuna lehenetsiz.

Dinamika honekin mugikortasunaren funtsezko bi alderdi landu daitezke:

1. Ohiko seinaleen eta bide-marren esanahia ezagutzea eta berrikustea.
2. Mugikortasun modu desberdinen arteko bizikidetzak baketsua errazteko arauen beharrari buruzko azterketa sakonagoa (elkarrizketa gidatua eta ondorioak).



Fitxa teknikoa

Dinamikaren izenburua:

Biderik seguruena.

Nori zuzendua:

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleak.

Erlazionatutako curriculum-arloak:

- Balio sozial eta zibikoak.


Erlazionatutako mugikortasun segururako gaitasunak:

- Ingurunearen azterketa.

Helburuak:

- Seinale eta bide-marra nagusiak ezagutzea eta haien funtzioa ezagutzea.
- Ingurunea aztertzea eta bide-egoerek dakartzaten arriskuak aurreikustea.
- Inguruneko seinaleak interpretatzea, erabakiak behar bezala hartu ahal izateko.

Jarduerak	Gutxi gorabeherako iraupena	Materialak
JOLAS BIRTUALA	30 minutu	Ordenagailuak Jolas birtuala
ELKARRIZKETA GIDATUA	20 minutu	
ONDORIOAK	10 minutu	




Jardueraren garapena

JOLASA

Jolasa ibilbide seguruak egitean datza, hiriaren puntu batetik eskolaraino doazen ibilbideak. Lau zailtasun maila edo nibel ditu. Lehenengo bi ibilbideak oinez egingo dira eta hurrengo biak bizikletaz. Parte-hartzaile bakoitzak jarraibide batzuk jarraitu beharko ditu, konplexutasun txikienetik handienara, hainbat seinale eta bide-marra identifikatuz eta erabiliz.


Jarduera hau bakarka edo taldean egin daiteke.

- **Banakakoa:** ikasle bakoitzak bere ordenagailuan egiten du jokia.
- **Taldeakoa:** ordezkaririk batek edo gehiagok jolasten dute ikasgela osoaren aurrean.



ELKARRIZKETA GIDATUA

Neska-mutilak biribilean eseriko dira, eta gai hauei buruz hitz egingo dute:



Jardueran agertu diren seinaleak ezagutzen zenituzten? Inoiz ikusi al dituzue zuen eguneroko joan-etorrietan? Kaletik zoaztenean, zein seinale edo bide-marrei ematen diozue arreta gehien?

Zergatik uste duzue seinaleak beharrezkoak direla?

Bidea partekatzen duten erabiltzaileen aniztasunari buruz hausnartzea bilatzen da. Zirkulazioa harmoniatsua izan dadin, arau batzuk ezarri behar dira; bestela, kaosa izango litzateke.

Ondo pentsatuz gero, mugikortasunak lotura handia du edozein motatako jokoekin. Pentsa dezagun, adibidez, saskibaloian: arau batzuk daude (adibidez, ezin da korrika egin baloia eskuetan dugula), eta epailearen seinale batzuk bete behar dira, gainerako jokalariekin batera jokoaz gozatu ahal izateko. Hori mugikortasunari ere aplikatzen zaio: gure kaleetan barrena mugitzeko, ikusi ditugun seinaleak eta zenbait arau daude.

Baina... itzul gaitezen seinaleen jokora. 1. eta 2. nibeletan, zaila izan da seinaleak leku egokietan jartzea? Ezagutzen zenituzten jokoan agertu diren seinale guztiak?

Zer egiten zenuten seinaleak non jarri behar ziren jakiteko?

Irudian agertzen zen informazio guztia behatzen zutela eta ondoren seinaleak non jarri erabakitzen zutela esatea nahi da.

Hau da, **zer bide hartuko zenuketen ERABAKITZEKO, lehenbizi kaleko informazioa BEGIRATU behar da**, hala da? Eta seinaleak leku estrategikoetan jartzen zenituzten bidearen erabiltzaileei zerbait jakinarazteko (epaileak saskibaloian seinaleak egiten dizkigun bezala), zuzena da hori? Horrela, zuek ez ezik, **beste pertsona batzuk ere egon litezke espazio beretan, arriskurik gabe, arauen jarraibideei jarraituz.**

Eta zer gertatu da 3. eta 4. nibeletan, zaila izan da zuen helmugara iristea?

Kalean mugitzen zaretenean, kontuan hartzen al dituzue seinaleak jolasean egin duzuen bezala?

Kaleetatik zirkulatzen dutenean ibilbideak automatizatu dituztela eta, agian, ez dutela seinaleetako informazioa jolasean egin den bezala ikusten eta jasotzen adieraztea nahi da.

Zer gertatu da jolasean seinaleei kasurik egin ez badiezue?

Jolasak berak kendu dizkit gaizki egindako bide-zatiak, eta birkokatzer behartu nau.

Hau da, seinaleekin jolasten dugunean eta haien aginduei jarraitzen ez diegunean, ibilbideak berriz egitera behartuak izatearen arriskua dugu, ezta?

Eta bizitza errealean seinaleen eta bide-marren jarraibideak betetzen ez baditugu, zein arrisku ditugu?

- *Ikasleek gogoeta egin behar dute inguruneak ematen digun informazioa behar bezala erabiltzen ez dugunean bizitza errealean hartzen ditugun arriskuei buruz.*
- *Adibide hauek aipa daitezke, besteak beste: obretan dagoen espazio batetik ibiltzea, okerreko bidea hartzea, kontrako noranzkoan zirkulatzea, ibilgailuen lehentasunak ez errespetatzea...*

Hala da... jolasean, arriskuen ondorioak ibilbidea berriro errepikatzearekin lotuta zeuden... baina bizitza errealean leku batetik bestera mugitzen garenean hartzen ditugun arriskuen ondorioak nahiko desberdinak dira... Zer ondorio izan ditzake...

- ...egoera txarrean dagoen lurzoru batetik bizikletaz zirkulatzeak?
- ...okerreko bidea hartzeak?
- ...kontrako noranzkoan zirkulatzeak?
- ...ezarritako lehentasunak ez errespetatzeak?

Hala ere, ondorio horiek **ez dira BETI gertatzen seinaleei kasurik egiten ez badiegu**, ezta? Seguraski inoiz semaforo bat gorritz pasatu duzue inor ez zetorrelako, edo bidegorritik kanpo ibili zarete. Gertatu zaizue horrelakorik?

Ikasleek egiten dituzten "arau-hauste" txikiei buruz hitz egin dezaten eskatzen da.



Baliteke inoiz ezer gertatu ez izana... edo, agian, ezusteko bat hartu duzue, edo beste norbaiti sustoren bat eman diozue...

Ikasleei aukera ematen zaie gertatu zaien antzeko egoeraren bat deskribatzeko.

Bizitza errealean, arriskuren bat bizi dugun bakoitzean ez dugu zertan ondorio negatiborik izan, ezta? Batzuetan ez dugu sustorik ere hartzen. Horregatik lasaitu egiten gara, eta askotan ahaztu egiten dugu hurrengo hau; nahiz eta arriskatu garen beste momentu horietan ez zaigun ezer gertatu, **MUGIKORTASUNEAN, ARRISKATZEN GAREN BAKOITZEAN, ONDORIOAK EGON DAITEZKE.**

Inoiz saskibaloian jokatu baduzue, jakingo duzue garrantzitsua dela punteria ona izatea, baina, batez ere, saskira botatzeko aukera bilatu behar da: zenbat eta gehiagotan bota, orduan eta aukera gehiago dago pilota saskiratzeko. Mugikortasunarekin antzeko zerbait gertatzen da: **seinaleei zenbat eta gehiagotan kasurik ez egin, orduan eta aukera gehiago dago ezbeharren bat izateko.**



ONDORIOAK


Jarduera bukatutakoan, taldeak ondorio hauek atera behar izan ditu:

- Kalean hainbat arrisku ditugu. Horietako askok hirietan mugitzeko moduen arteko elkarbizitzarekin dute zerikusia. Bizikidetza hori inor zauritu gabe egiten dela bermatzeko, seinale eta bide-marra batzuk daude.
- Gure ibilbideak modu seguruan egiteko, seinaleen eta bide-marren funtzioa ezagutu behar dugu. Hala ere, horiek ezagutzea ez da nahikoa gure joan-etorrietan segurtasuna bermatzeko: adierazten dituzten arauak bete egin behar dira.
- Gainera, funtsezkoa da erne egotea eta ingurunea aztertzea, arriskuez ohartarazten gaituzten seinaleak hauteman ahal izateko.
- Mugikortasunean, seinale eta bide-marren jarraibideei ez jarraitzea saskibaloian tranpa egitea bezala da: zaila da horrela "jolastea".


Jarduera osagarriak

ARLOA: HIZKUNTZA

12. jarduera. **Ipuina sortuko dugu.**




Actividad 15. **Eztabaidatxoak.**



ARLOA: MATEMATIKAK

15. jarduera. **Poliziaren azterlana.**



ARLOA: ARTE HEZKUNTZA

12. jarduera. **Eskolan seinaleak jartzea.**




ARLOA: GORPUTZ HEZKUNTZA

14. jarduera. **Lankidetzako aulkiak.**



ARLOA: INGURUNEAREN EZAGUTZA

14. jarduera. **Egunez egunekoari behatuz.**



Material honen egileak:



formaccio

taller kreatiboa
taller creative
creative workshop

tk

2021
